



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA

2019/08/26

Bizkaiko Batzar Nagusiek bat egin dabe Barakaldoko Udalak joan dan zapatuan izandako eraso sexistaren aurrean erakutsi dauen erabateko kondenagaz

Batzarretako talde guztiek bat egin dabe gaur goizean Barakaldoko Udalak, joan dan zapatuan, abuztuaren 24an, udalerrian gertatu zan eraso sexistea indar osoz kondenetako eta eraso jasan dauen emakumeari babes osoa eskaintzeko eta behar daikezan udal baliabide guztiak bere esku jarteko, kaleratu dauen adierazpenagaz. Bizkaiko Batzar Nagusiak Udalaren adierazpenaren alde agertu dira. Adierazpenean gogoratuazoten da “indarkeria matxistea dala emakumeen eta gizonen artean bizi dogun desbardintasun egoeraren ondoriorik larriena”.

Udalagaz bat etorrita, Batzar Nagusiek euren arbuioa erakutsi gura dabe “emakumeen integritadearen, sexu askatasunaren eta bizitzaren kontra doan edozein ekintza edo jarrera baztertzaileren aurrean”. Holango ekintzek ez daukie lekurik gure gizartean. Gure gizarteak indarkeria matxista barik, askatasunean, bizi gura dau, emakumeek ez daien eraso jasateko bildurrik izan, gizonen eta emakumeen arteko errespetuzko bizikidetzan.

Udaleko Bozeroaleen Batzarra gaur goizean alkartu da, adierazpena adosteko eta mobimendu feministak gaur arratsalderako, 18:00etarako, Herriko Plazan deitu dauen alkarretaratzeagaz bat egiteko. Udalak, eraso matxistaren kontrako alkarretaratze horretara joatea eskatu deutse herritarrei, eta biztanle guztiak “indarkeria matxistaren kontra buru-belarri jardutera” animau ditue, “bardintasunezko Barakaldo eregi daigun”.

Modu berean, Bizkaiko Batzar Nagusiek euren babesa eta alkartasuna erakutsi gura deutse biktimari, eta eraso matxistarik bako Bizkaia lortzeko beharrea jarraitzeko konpromisoa erakutsi dabe, gizonen eta emakumeen arteko bardintasunean eta errespetuan oinarritutako politikak bultzatuz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

26/08/2019

Las Juntas Generales de Bizkaia respaldan la rotunda condena del Ayuntamiento de Barakaldo a la agresión sexista ocurrida el pasado sábado

Todos los grupos junteros se suman al comunicado emitido esta mañana por el Ayuntamiento de Barakaldo para condenar rotundamente el ataque sexista ocurrido la noche del sábado 24 de agosto en el municipio, mostrar todo su apoyo a la mujer agredida y poner a su disposición todos los recursos municipales que pueda necesitar. Las Juntas Generales de Bizkaia respaldan la declaración del consistorio que recuerda que “la violencia machista es el efecto más grave de la situación de desigualdad entre mujeres y hombres que vivimos”.

En sintonía con el consistorio, las Juntas Generales quieren también mostrar su rechazo “a cualquier tipo de acto o conducta discriminatoria que vaya en contra de la integridad, libertad sexual y la vida de las mujeres”. Este tipo de actos no tienen cabida en nuestra sociedad, que quiere vivir sin violencia machista, con libertad, donde las mujeres no tengan que sentir miedo a ser agredidas y en una convivencia respetuosa entre hombres y mujeres.

La Junta de Portavoces del Ayuntamiento se ha reunido esta mañana para consensuar la declaración y sumarse a la protesta convocada por el movimiento feminista esta tarde a las 18 horas en la Herriko Plaza. El Ayuntamiento ha pedido a la ciudadanía que participe en la concentración de rechazo al ataque machista y ha animado “a toda la ciudadanía a ser activa en contra de la violencia machista para que podamos, construir un Barakaldo más igualitario”.

Igualmente, las Juntas Generales de Bizkaia quieren expresar su apoyo y solidaridad con la víctima y se comprometen a seguir trabajando para conseguir una Bizkaia libre de agresiones machistas, fomentando políticas de igualdad y de respeto de los hombres hacia las mujeres.